

HARREMANAK

Aplikazio honek bezeroekiko harremanak modu aktibo eta berezian sustatzen ditu, konpromisoa, gamifikazioa eta komunitatearen sorkuntza oinarri hartuta. Gamifikazio teknikak, hala nola puntuak, erabiltzaileak motibatzen dituzte aktibo mantentzeko eta ohitura osasuntsuak bultzatzeko.

Erronken bidez, erabiltzaileek sariak eskuratzen dituzte tokiko kirol-dendetan, balio erantsia eta inplikazioa areagotuz. Aldi berean, komunitate sentrazioa indartzen da elkarlana eta lehiaketa osasuntsua sustatuz.

Tokiko kirol-dendekin lankidetzak tokiko ekonomia eta aplikazioaren posizionamendua indartzen ditu. Gainera, datu pertsonalizazioaren bidez esperientzia bereziak eskaintzen dira, erabiltzaileen asebetetzea eta fideltasuna bermatuz. Horrela, aplikazioak bezeroekin harreman iraunkor eta sendoa sortzen du.